



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Arriaga Antzokiak emanaldi interesgarriak eskainiko ditu datozen egunotan, Oskarbi, Marcos Varela eta Rossini Abesbatzaren eskutik

- Oskarbi, euskal folk talde ospetsuak, *Kantua zueri* izeneko lan berria aurkeztuko du abenduaren 13an, astelehenean, Literatura eta Musika Euskaraz ekimenaren baitan.
- Abenduaren 14an, asteartean, "BJC Arriagan" zikloa itzuliko da, Marcos Varela baxu-jotzaile eta kontrabaxista estatubatuar prestigiotsuaren emanaldiarekin.
- Asteazkenean, hilaren 15ean, Rossini Abesbatzak *Rossini On Air: Christmas edition* eskainiko du, bere musika, antzerki eta irrati ikuskizun dibertigarriaren Gabonetako bertsioa, Iñaki Maruri eta Mitxel Santamarinaren parte hartzearekin.

**Bilbo, 2021eko abenduaren 10a.** – Datorren astean, Arriaga Antzokiak mailarik oneneko eta gustu anitzetarako musika proposamenak eskainiko dizkigu. Abenduaren 13an, astelehenean, hitzordua **Oskarbi** euskal folk talde mitikoarekin izango da, zeinak *Kantua zueri* bere azken lana aurkeztuko baitu antzokiko foyerrean, 19:30etik aurrera. Bertan, musika moldaketa ederrak eta ahots harmonia zainduak konbinatzeko duten dotoretasuna eta fintasuna erakutsiko dute. Kontzertua Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako "Literatura eta Musika Euskaraz" programaren baitan dago.

Hurrengo egunean, hilaren 14an, asteartean, "**BJC Arriagan**" zikloa itzuliko da, Bilbaina Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak antolatuta, **Marcos Varela**ren emanaldiarekin. Texasko kontrabaxu-jotzailea New Yorken bizi da, eta AEBko eta nazioarteko jazz eszenako musikaririk errespetatuenetako bat da. Bikaina, bai kontrabaxuarekin, bai baxu elektrikoarekin, eta bere talentuak sari eta aintzatespen asko eman dizkio musikari, konpositore, lider, ekoizle eta hezitzaile gisa. Varelak **San Ygnacio Project** izeneko bere proiektua aurkeztuko du, kritika espezializatuaren gorapamen handiak jaso dituena. Kontzertua 19:30ean hasiko da.

Asteazkeneko proposamena (hilaren 15ekoa, hau ere 19:30ean) kalitate musikalaren, antzerki-izaeraren eta barrea eragiteko gaitasunaren arteko fusioaren adibidea da. **Rossini Abesbatza** Arriagara itzuliko da Gabonak aurreratzeko, *Rossini On Air: Christmas Edition* bereziarekin, data berezi hauetarako apropos sortutako musika eta antzerki ikuskizunarekin, izan ere, Gabon-kanta kutunen aukeraketa bat egin baitute, ikusleriaren gozagarri. *Zarzuela On Air*, aurtengo apirilean bertan Arriagako ikusleak dibertitu zituen ikuskizuna bezala, *show* berri hau ere irratsaio entretenigarri eta

original gisa pentsatuta dago, eta Aurori Badiola eta M<sup>a</sup> Ángeles Salas (**Iñaki Maruri** eta **Mitxel Santamarin** interpretatuak) paregabeek gidatuko dute. Bi esatari oso berezi dira eta, haien gatz eta piperrarekin, musika errepatatuko dute, Gabonak gai nagusizat hartuta. Gabon-kantez gain, oroimenean modu berezian grabatuta geratu diren eta oroitzapen nostalgikoen parte diren irrati eta telebistako iragarkiak entzuteko aukera egongo da. Azken batean, arratsalde/gau benetan dibertigarria izatea aurreikusten da.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- **Oskarbi**: 15 euro (beherapenekin)
- **Marcos Varela**: 21 euro (beherapenekin)
- **Rossini On Air: Christmas Edition**: 10 eta 21 euro artean (beherapenekin)

Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

**Hiru emanaldi horiei eta Arriaga Antzokiak programatutako ikuskizun guztiei buruzko informazio zehatzagoa:**

**<https://www.teatroarriaga.eus/proximos-espectaculos/?lang=eu>**

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)